

## GIL 17 Aldeacuevako olistolitoa



Plataformaren ertzeko kareharrien olistolitoak irtegunenabarmen bat eratzen du, eta, haren beheko aldean, leize txiki bat.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 11' 34,08 '' N  
Long.: 3° 22' 44, 91'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 469.193,50 m  
Y: 4.782.294,96 m



### Nola iritsi

Ondoen ikusten den azaleramendua Aldeacueva auzoko elizaren ondoan dago (Karrantza Harana). BI-630 errepidean, hartu BI-3622 saihezbidea Concha auzora. Conchan, BI-4672 saihezbidea hartu hegoalderantz, Aldeacuevara.

## GILaren deskribapen laburra

Aldeacuevako olistolitoa Eusko-Kantauriar arroko bigarren olistolito handiena da. Olistolitoak plataformaren ertzeko bloke handiak dira, tokiko ezegonkortasunen eraginez ezpondan behera erori direnak.

Aldeacuevako 450 m inguruko luzera duen kareharri-zati bat da, irristatuz jalki zena (biraketarik gabe), haren geruzak hura biltzen duten materialekiko era konkordantean orientatuak daudelako. Haren jatorria Erdi Albiarrean Eusko-Kantauriar arroan gertatu zen itsas mailaren beheratzearekin erlazionatua dago.

Ramaleseko Albiarreko plataformaren ertzeko ezponda karbonatatuak ezegonkortasunak inguru hartan lurrikarak eragin zituzten failen jardueraren ondorio dira. Eragin horrek, itsas maila erlatiboki beheratuekin batera, ezpondako kareharrien zati kohesionatuak apurtzea izan zuen ondorio; ezpondan behera joan ziren eta higakin-fluxuak sorra-razi zituzten. Dentsitate handiko fluxu horietan, berriz, errotik ateratako bloke handiak egon zitezkeen, hala nola Aldeacuevako.

Aldeacuevako olistolitoa jatorri turbiditikoa duen serie nagusiki siliziklastiko batean sartua dago, zeina itsas ildo sakon batean eratu baitzen (>150 m). Ildo hori Ramaleseko plataforma karbonatatuak mugatzen du ipar-iparmendebaldean, eta gaur egun azalera-tua ez dagoen sakonera txikiko uretako plataforma karbonatatu batek, berriz, hego-hegoekialdean. Ildoa subsidentzia handiko gune batean sortu zen, sakonera txikiko uretako eta subsidentzia txikiagoko bi gune alboetan zituela; bloke goratuetan paleogainak eta bloke hondoratuetan paleoildoak mugatzen zituzten zokalo-apurketen bidezko egitura-kontrol bati erantzunez sortu zen, hain zuzen.

## Behatzeko punturik onena

*In situ*. Elizaren ingurutik.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 16, GIL18, GIL64, GIL138, GIL 67, GIL 144, GIL 107, GIL 116, GIL 142, GIL 54, GIL 29, GIL 145.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 16.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- López-Horgue, M. A., (2000). *El Aptiense-Albiense de Karrantza-Lanestona (Bizkaia y Cantabria)*. Argitaratu gabeko doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 264. or.
- López-Horgue, M. A., Owen, H. G., Aranburu, A., Fernández-Mendiola, P. A. eta García-Mondéjar, J. (2009). "Early late Albian (Cretaceous) of the central region of the Basque-Cantabrian Basin, northern Spain: biostratigraphy based on ammonites and orbitolinids". *Cretaceous Research*, 30, 385-400.
- López-Horgue, M. A., Aranburu, A., Fernández-Mendiola, P. A. eta García-Mondéjar, J. (2000). "Existencia de una discordancia angular con laguna del Albiense medio en el Complejo Urgoniano de Ranero (Ramales-Karrantza, región vasco-cantábrica)". *Geogaceta* 28, 89-92.